

SOCIEDAD DEPORTIVA EIBAR, S.A.D.
Urteko Kontuak, 2020ko ekainaren 30a

SOCIEDAD DEPORTIVA EIBAR, S.A.D.

URTEKO KONTUEN AURKIBIDEA

Oharra	Orrialdea
Balantzea	3
Galdu-irabazien kontua	4
Aitortutako diru-sarreraren eta gastuen egoera	5
Ondare garbian egindako aldaketaren egoera, guztira	5
Eskudiruzko fluxuen egoera	6
Memoria	
1 Informazio orokorra	7
2 Aurkezpen-oinarriak	7
3 Kontabilitate-irizpideak	9
4 Finantza-arriskuaren kudeaketa	15
5 Ibilgetu ukiezina	17
6 Ibilgetu materiala	18
7 Finantza-baliabideen azterketa	19
8 Maileguak eta kobratzeko partidak	21
9 Izakinak	22
10 Periodokatzeagatiko doikuntzak	22
11 Kapital soziala eta fondo soziala	23
12 Erreserbak	23
13 Ekitaldiaren emaitza	24
14 Jasotako kapitaleko diru-laguntzak	24
15 Zorrak eta ordaintzeko partidak	25
16 Zerga-egoera	26
17 Diru-sarrerak eta gastuak	29
18 Administrazio Kontseiluarentzako eta Goi Zuzendaritzarentzako ordainsariak	33
19 Kontingentziak	33
20 Itxieraren osteko gertakizunak	33
21 Kontu-ikuskarien zerbitzu-sariak	33
22 Espainiako Futbol Liga Profesionalaren kontrol ekonomikorako araubidearen arau eta adierazleei buruzko informazio garrantzitsua	33
23 2019/2020ko denboraldiko aurrekontuaren likidazioa	39
24 2020/2021eko denboraldirako aurrekontuaren proposamena	40

SOCIEDAD DEPORTIVA EIBAR, S.A.D.

2020KO ETA 2019KO EKAINAREN 30EAN AMAITUTAKO EKITALDIEI BURUZKO BALANTZEA
(Eurotan adierazita)

AKTIBOA	Oharra	Ekainaren 30ean	
		2020	2019
AKTIBO EZ-ARRUNTA		58.786.280,04	25.056.259,01
Kirol-ibilgetu ukiezina	5	7.062.854,63	11.368.204,40
Ibilgetu materiala	6	16.524.872,65	9.158.054,61
Epe luzerako finantza-inbertsioak	7, 8	26.958.001,62	4.530.000,00
Merkataritzako zordunak eta epe luzera kobratzeko beste kontu batzuk	7, 8	6.083.750,00	-
Geroratutako zergagatiko aktiboak	16	2.156.801,14	-
AKTIBO ARRUNTA		31.672.912,85	48.577.839,74
Saltzeko mantendu diren aktibo ez-arruntak	5	2.400.000,00	-
Izakinak	9	128.012,52	107.752,82
Merkataritzako zordunak eta kobratzeko beste kontu batzuk	7, 8	17.262.652,59	7.860.337,00
Kirol-erakundeei emandako kredituak		14.284.441,98	6.244.543,48
Beste merkataritza-kreditu batzuk		2.694.318,22	1.289.168,33
Beste zordun batzuk		15.000,00	36.625,19
Pertsonala		74.454,49	290.000,00
Zerga arruntagatiko aktiboak	16.4	194.437,90	-
Taldeko enpresetan eta epe laburrerako enpresa bazkideuetan egindako inbertsioak	7, 8	2.581,34	2.581,34
Epe laburrerako finantza-inbertsioak	7, 8	1.772.927,47	23.123.596,74
Zorra adierazten duten balioak		1.494.974,73	1.032,88
Beste finantza-aktibo batzuk		277.952,74	23.122.563,86
Epe laburrerako periodifikatzeak	10	102.874,02	3.333.410,56
Eskudirua eta beste aktibo likido baliokide batzuk		10.003.864,91	14.150.161,28
AKTIBOA, GUZTIRA		90.459.192,89	73.634.098,75

ONDARE GARBIA ETA PASIBOA	Oharra	Ekainaren 30ean	
		2020	2019
ONDARE GARBIA		66.554.040,02	50.996.622,53
Berezko fondoak		64.933.549,75	49.805.434,58
Kapitala	11	2.802.212,83	2.802.212,83
Erreserbak	12	47.003.221,75	35.252.624,72
Ekitaldiaren emaitza	13	15.128.115,17	11.750.597,03
Jasotako diru-laguntzak, dohaintzak eta legatuak	14	1.620.490,27	1.191.187,95
PASIBO EZ-ARRUNTA		352.732,66	516.155,84
Geroratutako zergagatiko pasiboak	16.1	352.732,66	381.468,34
Epe luzerako hornidurak		-	134.687,50
Beste hornidura batzuk		-	134.687,50
PASIBO ARRUNTA		23.552.420,21	22.121.320,38
Epe laburrerako zorrak	7, 15	586.122,01	394.172,84
Hartzekodun komertzialak eta ordaintzeko beste kontu batzuk	7, 15	14.315.370,59	13.438.990,10
Kirol-erakunde hartzekodunak	7	1.885.618,03	3.541.441,38
Askotariko hornitzaile eta hartzekodunak	15	1.350.261,18	457.626,25
Ordaintzeko dauden ordainsariak	15 b)	5.231.596,41	2.846.547,06
Zerga arruntagatiko pasiboak	16.4	-	1.335.958,63
Beste zorra batzuk Herri Administrazioekin	15, 16.4	5.847.894,97	5.257.416,78
Epe laburrerako periodifikatzeak	10	8.650.927,61	8.288.157,44
ONDARE GARBIA ETA PASIBOA, GUZTIRA		90.459.192,89	73.634.098,75

SOCIEDAD DEPORTIVA EIBAR, S.A.D.

**2020KO ETA 2019KO EKAINAREN 30EAN AMAITUTAKO EKITALDIEI BURUZKO BALANTZEA
(Eurotan adierazita)**

1etik 24ra arteko oharra 2020ko ekainaren 30eko Memoriaren parte dira.

SOCIEDAD DEPORTIVA EIBAR, S.A.D.

2020KO ETA 2019KO EKAINAREN 30EAN AMAITUTAKO EKITALDIEI BURUZKO GALDU-IRABAZIEN KONTUA (Eurotan adierazita)

	Oharra	Ekainaren 30ean bukatu den ekitaldia	
		2020	2019
Negozio-zifraren zenbateko garbia	17 a)	47.309.372,44	52.330.256,36
Kirol arloko diru-sarrerak		1.151.882,22	1.347.085,07
Emankizunen ondoriozko diru-sarrerak		42.191.673,97	47.008.276,48
Merkaturatzearen eta publizitatearen ondoriozko diru-sarrerak		3.965.816,25	3.974.894,81
Hornidurak	17 b)	(422.470,83)	(473.933,65)
Kirol-materialaren kontsumoa		(26.245,82)	(127.235,90)
Beste kontsumo batzuk eta kanpoko gastuak:		(396.225,01)	(346.697,75)
Ustiapeneko bestelako diru-sarrerak		424.420,65	1.777.160,00
Diru-sarrera osagarriak eta kudeaketa arrunteko beste diru-sarrera batzuk		424.420,65	1.777.160,00
Langileen gastuak	17 c)	(34.359.574,21)	(30.961.198,32)
Kirol arloko langileen gastuak		(30.341.331,59)	(27.315.047,46)
Kirol arlokoak ez diren langileen lansariak eta soldatak		(3.447.475,54)	(3.146.187,20)
Kirol arlokoak ez diren langileen gizarte-kargak		(570.767,08)	(499.963,66)
Ustiapeneko bestelako gastuak		(10.220.252,05)	(9.206.818,16)
Kanpo-zerbitzuak	17 d)	(3.791.998,71)	(2.920.073,61)
Zergak		34.396,05	(442.163,52)
Eragiketa komertzialetako galerak, narriadurak eta hornidura-aldakuntzak		-	(134.687,50)
Joan-etorriak		(687.370,18)	(781.174,29)
Jokalariak erosteko gastuak		(3.106.305,86)	(2.639.563,24)
Kudeaketa arruntaren bestelako gastuak	17 d)	(2.668.973,35)	(2.289.156,00)
Ibilgetuaren amortizazioa	5, 6	(8.207.089,05)	(5.439.964,14)
Ibilgetu ez-finantzarioko diru-laguntzen eta bestelako egozte	14	149.433,36	113.933,36
Ibilgetua besterentzeagatiko narriadura eta emaitza		18.179.037,78	5.550.721,21
Narriadurak eta galerak	5	(2.634.622,81)	(172.413,80)
Besterentzeagatiko emaitzak eta bestelakoak	5, 17 e)	20.813.660,59	5.723.135,01
USTIAKETAREN EMAITZA		12.852.878,09	13.690.156,66
Diru-sarrera finantzarioak		130.522,07	59.696,15
Gastu finantzarioak	17 g)	(320.265,79)	-
EMAITZA FINANTZARIOA		(189.743,72)	59.696,15
EMAITZA ZERGEN AURRETIK		12.663.134,37	13.749.852,81
Mozkinen gaineko zergak	16.2	2.464.980,80	(1.999.255,78)
EKITALDIAREN EMAITZA	13	15.128.115,17	11.750.597,03

1etik 24ra arteko oharrak 2020ko ekainaren 30eko Memoriaren parte dira.

SOCIEDAD DEPORTIVA EIBAR, S.A.D.

**2020KO ETA 2019KO EKAINEAN AMAITUTAKO EKITALDIEI BURUZKO ONDARE GARBIAN
EGINDAKO ALDAKETEN EGOERA-ORRIA
(Eurotan adierazita)**

A) AITORTUTAKO DIRU-SARREREN ETA GASTUEN EGOERA (Eurotan adierazita)

	Oharra	Ekainaren 30ean bukatu den ekitaldia	
		2020	2019
Galdurabazien kontuaren emaitza	13	15.128.115,17	11.750.597,03
Ondare garbiari zuzenean egotzitako diru-sarrerak eta gastuak			
Jasotako diru-laguntzak, dohaintzak eta legatuak	14	591.702,52	583.918,73
Zerga-eragina	14, 16.1	(41.703,52)	(110.232,23)
Ondare garbiari zuzenean egotzitako diru-sarrerak eta gastuak, guztira		550.000,00	473.686,50
Galdurabazien konturako transferentziak			
Jasotako diru-laguntzak, dohaintzak eta legatuak	14	(149.433,36)	(113.933,36)
Zerga-eragina	14, 16.1	28.735,68	28.735,68
Galdurabazien konturako transferentziak, guztira		(120.697,68)	(85.197,68)
AITORTUTAKO DIRU-SARRERAK ETA GASTUAK, GUZTIRA		15.557.417,49	12.139.085,85

B) ONDARE GARBIAN EGINDAKO ALDAKETEN EGOERA, GUZTIRA (Eurotan adierazita)

	Kapitala (11. oharra)	Erreserbak (12. oharra)	Ekitaldiaren emaitza (13. oharra)	Jasotako diru- laguntzak, dohaintzak eta legatuak (14. oharra)	GUZTIRA
SALDOA, 2018. URTEAREN AMAIERAN	2.802.212,83	21.785.049,44	13.467.575,28	802.699,13	38.857.536,68
Aitortutako diru-sarrerak eta gastuak, guztira	-	-	11.750.597,03	388.488,82	12.139.085,85
Emaitzaren banaketa	-	13.467.575,28	(13.467.575,28)	-	-
SALDOA, 2019. URTEAREN AMAIERAN	2.802.212,83	35.252.624,72	11.750.597,03	1.191.187,95	50.996.622,53
Aitortutako diru-sarrerak eta gastuak, guztira	-	-	15.128.115,17	429.302,32	15.557.417,49
Emaitzaren banaketa	-	11.750.597,03	(11.750.597,03)	-	-
SALDOA, 2020. URTEAREN AMAIERAN	2.802.212,83	47.003.221,75	15.128.115,17	1.620.490,27	66.554.040,02

1etik 24ra arteko oharra 2020ko ekainaren 30eko Memoriaren parte dira.

SOCIEDAD DEPORTIVA EIBAR, S.A.D.

**2020KO EKAINAREN 30EAN ETA 2019KO EKAINAREN 30EAN AMAITUTAKO URTEALDIEI BURUZKO
ESKUDIRUZKO FLUXUEN EGOERA-ORRIA
(Eurotan adierazita)**

	Oharra	Ekainaren 30ean bukatu den ekitaldia	
		2020	2019
USTIAPEN-JARDUEREN ESKUDIRUZKO FLUXUAK			
Ekitaldiaren emaitza, zergen aurretik		12.663.134,37	13.749.852,81
Emaitzaren doikuntzak		(9.931.638,37)	(149.699,08)
Ibilgetuaren amortizazioa	5, 6	8.207.089,05	5.439.964,14
Hornidura-aldakuntzak		-	134.687,50
Ibilgetuko diru-laguntzen egozteak	14	(149.433,36)	(113.933,36)
Ibilgetua besterentzeagatik narriadura eta emaitza	5, 17 e)	(18.179.037,78)	(5.550.721,21)
Diru-sarrera finantzarioak		(130.522,07)	(59.696,15)
Gastu finantzarioak		320.265,79	-
Kapital arruntean aldaketak		(3.751.616,96)	(2.266.998,65)
Izakinak		(20.259,70)	104.991,60
Zordunak eta kobratzeko beste kontu batzuk		(9.402.315,59)	(897.707,20)
Beste aktibo arrunt batzuk		3.230.536,54	(2.873.568,66)
Hartzekodunak eta ordaintzeko beste kontu batzuk		2.212.339,12	1.388.075,23
Beste pasibo arrunt batzuk		362.770,17	11.210,38
Beste ordainketa batzuk		(134.687,50)	-
Ustiapen-jardueren eskudiruzko beste fluxu batzuk		(1.217.522,69)	(1.304.959,79)
Interesen kobrantzak		130.522,07	59.696,15
Gastu finantzarioak		(320.265,79)	-
Mozkinen gaineko zergak eragindako kobrantzak (ordainketak)		(1.027.778,97)	(1.061.675,53)
Beste ordainketa batzuk (hornidurak)		-	(302.980,41)
Ustiapen-jardueren eskudiruzko fluxuak		(2.237.643,65)	10.028.195,29
INBERTSIO-JARDUEREN ESKUDIRUZKO FLUXUAK			
Inbertsioek eragindako ordainketak			
Ibilgetu ukiezina	5	(9.550.000,00)	(6.625.000,00)
Ibilgetu materiala	6	(8.802.019,54)	(3.232.098,72)
Finantza-inbertsio arruntak		(1.772.927,47)	(23.123.596,74)
Finantza-inbertsio ez-arruntak		(25.428.001,62)	(4.030.000,00)
Inbertsio ezagatik kobrantzak			
Ibilgetu ukiezina		16.778.750,00	6.936.500,00
Finantza-inbertsio arruntak		23.123.596,74	22.347.027,21
Finantza-inbertsio ez-arruntak		3.000.000,00	-
Inbertsio-jardueren eskudiruzko fluxuak		(2.650.601,89)	(7.727.168,25)
FINANTZAKETA-JARDUEREN ESKUDIRUZKO FLUXUAK			
Jaulkipena:			
Beste zorra batzuk		586.122,01	394.172,84
Itzulera eta amortizazioa:			
Beste zorra batzuk		(394.172,84)	(85.345,07)
Ondare-baliabideen ondoriozko kobrantzak:			
Jasotako diru-laguntzak, dohaintzak eta legatuak	14	550.000,000	80.000,00
Finantzaketa-jardueren eskudiruzko fluxuak		741.949,17	388.827,77
ESKUDIRU EDO BALIOKIDEEN IGOERA/MURRIZKETA GARBIA			
		(4.146.296,37)	2.689.854,81
Eskudirua edo baliokideak ekitaldi hasieran		14.150.161,28	11.460.306,47
Eskudirua edo baliokideak ekitaldi bukaeran		10.003.864,91	14.150.161,28

1etik 24ra arteko oharra 2020ko ekainaren 30eko Memoriaren parte dira.

SOCIEDAD DEPORTIVA EIBAR, S.A.D.

2020KO EKITALDIAREN MEMORIA (Eurotan adierazita)

1. Informazio orokorra

Sociedad Deportiva Eibar, S.A.D. kirol-elkartea Eusko Jaurlaritzaren urriaren 8ko 306/1985 Errege Dekretuaren babesean eratu zen era ofizialean. Dekretu horrek, hain zuzen, kirol-elkarteen eta klubien eraketa eta funtzionamendua arautzen zituen. Hala ere, praktikan, Elkartek 1940az geroztik funtzionatzen zuten.

1992ra arte, erakunde pribatu bat zen, jarduteko ahalmen eta nortasunarekin, irabazi asmorik gabe eta kirol-jarduera eta ariketa fisikoa bultzatzeko helburu soilarekin, eta futbola zuen kirol-modalitate nagusitzat.

Kirolaren urriaren 15eko 10/1990 Legearen lehenengo xedapen iragankorrak eta Kirol Sozietate Anonimoak arautzen dituen uztailaren 5eko 1084/1991 Errege Dekretuak ezarritakoari jarraikiz, 1992ko ekainaren 26an, Elkartea, eskritura publikoa egin ondoren, Kirol Sozietate Anonimo bilakatu zen.

Elkartearen egoitza fiskala Ipurua kaleko 2. zenbakian dago, Eibarren.

Bere helburu soziala da izaera profesionaleko kirol-lehiaketa ofizialetan parte hartzea futbolaren kirol-modalitatean, bai eta kirol-modalitate bateko edo gehiagori buruzko kirol-ekintzak edo futbolaren praktikarekin lotutako beste jarduerak batzuk sustatu eta garatzea ere.

Elkartea ez da elkarte-talde baten kide, Merkataritza Kodearen 42. artikuluan ezarritakoaren arabera.

2. Aurkezpen-oinarriak

a) Irudi leiala

Elkartearen kontabilitate-erregistroak erabili dira urteko kontuak osatzeko eta horiek aurkezteko garaian kontuan hartu dira indarreko merkataritza-legeria eta azaroaren 16ko 1514/2007 Errege Dekretuaren bidez onetsitako Kontabilitate Plan Orokorrean ezarritako arauak, bai eta egitasmo horretan 602/2016 Errege Dekretuaren bitartez egindako aldaketak. Urteko kontuen helburua da Elkartearen ondarearen, egoera finantzarioaren eta emaitzen irudi leiala erakustea, betiere, Kontabilitate Planeko Kirol Elkarte Anonimoei eta Kirol Erakundeei buruzko berezitasun espezifikoak errespetatuz eta legediari aurka egin gabe.

Urteko kontu hauen ekitaldi ekonomikoa 2020ko ekainaren 30ean amaitutako urteko ekitaldiari dagokio.

Urteko kontu hauek osatzen dituzten agirietako zifrak, balantzea, galdu-irabazien kontua, ondareko aldaketen egoera, eskudiruzko fluxuen egoera eta memoria eurotan adierazita daude.

Elkarteko administratzaileek egin dituzte urteko kontu hauek, eta Akziodunen Batzarrari aurkeztuko zaizkio, onetsi ditzan. Aldaketarik gabe onartuak izatea aurreikusten da.

b) Informazioaren konparaketa

Merkataritza arloko legediak eskatzen duenez, hainbat aldagairekin konparazioak egite aldera (balantzeko partida bakoitzarekin, galdu-irabazien kontuarekin, ondare garbiaren aldaketen egoera-orriarekin eta eskudiruzko fluxuen egoera-orriarekin), 2020ko ekitaldiko zenbatekoen gain, aurreko ekitaldiari dagozkion zifrak ere aurkeztu dira. Era berean, memorian, aurreko ekitaldiari buruzko informazio kuantitatiboa dago eskuragarri, salbu eta kontabilitate-arau batek berariaz ezartzen badu hori egiteko beharrik ez dagoela.

c) Kontabilitate-printzipio ez-derrigorrezkoak

Ondarean, finantza-egoeran eta emaitzetan eragina duten nahitaezko kontabilitate-printzipio guztiak aplikatu dira urteko kontu hauek lantzeko eta horiek dira 2020ko ekainaren 30ean amaitutako ekitaldiko urteko kontuak prestatzeko erabili diren bakarrak.

d) Balioztapenaren alde kritikoak eta ziurgabetasunaren zenbatespena

Urteko kontuak prestatzeko, Elkartek zenbait zenbatespen eta irizpen egin behar ditu etorkizunearan zer gertatuko den auresateko. Aurreikuspen horiek etengabe ebaluatzen dira, eta esperientzia historikoan eta beste faktore batzuetan oinarritzen dira, besteak beste, inguruabarren arabera arrazoizkotzat jotako etorkizuneko gertakarien

SOCIEDAD DEPORTIVA EIBAR, S.A.D.

2020KO EKITALDIAREN MEMORIA (Eurotan adierazita)

iguripenetan.

Kontabilitateari buruzko zenbatespenak, oro har, ez dira benetako emaitzen berdinak izango, are gutxiago COVID-19 gaitzaren ondoriozko egungo ziurgabetasun-testuingurua kontuan hartuta, non ez baita ezagutzen pandemiaren iraupena zein izango den eta Elkartek parte hartzen duen kirol-lehiaketetan zer-nolako eragina izango duen. Jarraian, hurrengo finantza-ekitaldian aktiboen eta pasiboen liburu-etako balioetan aldaketak egiteko arrisku nabarmena duten zenbatespenak eta irizpenak azalduko ditugu.

Aktibo ez-arrunten eta aktibo arrunt gisa erregistratu eta saltzeko mantendu diren aktibo ez-arrunten balioaren narriadura

Finantza-aktiboak ez diren aktibo ez-arruntak baloratzeko, zenbatespenak egin behar dira, haien balio berreskuragarria zehazteko eta batez ere, jokalariek erosteko eskubideei dagokienez, izan dezaketen narriadura ebaluatzeko.

Aktibo ez-arruntak baloratzeko, zenbatespenak egin behar dira, haien balio berreskuragarria zehazteko eta narriadura duten ebaluatzeko. Balio hori zehazteko, eta merkatu-baliorik erabili ezin denean, urteko kontuak formulatzen diren egunean, Elkartek aktiboen etorkizuneko eskudiruzko fluxuak zenbatetsi egiten ditu eta horretarako, eskudiruzko fluxu horien egungo balioa kalkulatzeko deskontu-tasa bat erabiltzen du. Horrez gain, Elkartek hainbat zenbatespen egiten ditu, aurreikusitako salmenta-kostuak kenduta, saltzeko mantendutako aktibo ez-arrunten merkatu-balioa zehazte aldera (3.3 oharra).

Mozkinen gaineko zerga

Mozkinen gaineko zerga kalkulatzeko, Elkarteari aplikagarri zaion araudi fiskala interpretatu behar da. Gainera, zenbait faktore daude, lege fiskaletako aldaketekin eta gaur egun indarrean dauden lege fiskalen interpretazio-aldaketekin bereziki, baina ez soilik, lotutakoak, Elkartearen zuzendaritzak zenbatespenak egitea eskatzen dutenak.

Geroratutako zergagatiko aktiboak

Denbora-diferentzia kengarri, konpentsatzeko zain dauden zerga-oinarri negatibo eta aplikatzeko zain dauden kenkari guztietarako erregistratzen dira geroratutako zergagatiko aktiboak, baldin eta Elkartek aktibo horiek aplikatzea ahalbidetzen duten zerga-irabaziak aurreikusten baditu. Administrazioak zenbatespen esanguratsuak egin behar dituzte erregistratu daitezkeen geroratutako zergagatiko aktiboen zenbatekoa zehazteko, kontuan hartuta noiz eta zer zenbatekorekin lortuko diren etorkizuneko zerga-irabaziak eta zergapeko denborazko diferentzien itzultze-aldia. 2020ko ekainaren 30ean, Elkartek 1.974.821,02 euroko eta 181.980,12 euroko geroratutako zergagatiko aktiboak ditu erregistratuta, konpentsatzeko zain dauden zerga-oinarri negatiboak eta aplikatzeko zain dauden kenkariei dagokienez, hurrenez hurren (16. oharra).

Erakundeak normaltasunez jarduten jarraitzeko duen gaitasunaren gaineko zalantza esanguratsuak ekar ditzaketen ekitaldi edo baldintzei dagokienez, Elkartearen administrazioak ez dute ziurgabetasun garrantzitsuen berri. Beraz, urteko kontu hauek jarduneko enpresaren printzipioaren arabera gauzatu dira.

e) Partiden taldekatzea

Balantzearen, galdu-irabazien kontuaren, ondare garbian egindako aldaketen egoera-orriaren eta eskudiruzko fluxuen egoera-orriaren partida hauek taldeka aurkeztu dira errazago ulertzeko, baina oharretan eskuragarri daude beharrezkoak diren analisiak.

SOCIEDAD DEPORTIVA EIBAR, S.A.D.

2020KO EKITALDIAREN MEMORIA (Eurotan adierazita)

3. Kontabilitate-irizpideak

Elkarteak kontabilitate-irizpide hauek erabili ditu urteko kontuak egiteko:

3.1 Ibilgetu ukiezina

a) Kirol-ibilgetu ukiezina

“Jokalariak erosteko eskubideak” epigrafean, jokalarien federazio-eskubideak erosteagatik sorrarazitako zenbatekoa jasotzen da. Horren balorazioa egiteko erosketa-prezioa hartzen da kontuan, eta linealki amortizatzen da jokalariak sinatutako kontratu federatiboak irauten duen bitartean.

Aktiboaren hasierako kontabilizatzea erosketa-kontratua indarrean sartzen den egunean egiten da. Hasierako kontabilizatzea egin ondoren, amortizazio metatuaren kostu garbiaren eta, halakorik dagoenean, narriadurarengatik erregistratutako zuzenketa metatuen zenbatekoaren arabera baloratzen dira.

Jokalariak erostean egindako bitartekaritza-zerbitzuen kostua erosketa-kostu handiagotzat erregistratzen da, eta linealki amortizatzen da jokalariaren kontratua indarrean dagoen bitartean.

Ekitaldia ixtean, narriaduraren zantzuak ebaluatzen dira eta kirol-ibilgetu ukiezina narriadurari buruzko ebidentzia objektibo eta argirik badago urteko kontuak formulatu aurretik, narriaduragatiko zuzenketa erregistratzen da. 2020ko ekainaren 30ean, Elkarateak ez du narriaduragatiko balio-zuzenketarik aurkezten (862.068,97 euro 2019ko ekainaren 30ean) (5. oharra).

Denboraldia amaitzean gauzatu ez diren jokalarien erosketa-aukerak haien erosketa-kostuaren arabera baloratzen dira; izan ere, aukeren arrazoizko balioa lortzeko zailtasunak daude, merkatu aktiborik edo antzeko transakziorik ez dagoelako.

Jokalarien bajak erregistratzeko, jokalariaren gaineko kontratu-eskubideak besterendu, eskualdatu, bertan behera utzi edo iraungitzeko data hartzen da kontuan. Ordura arte, ez da klubeko jokalarien gaineko kontratu-eskubideen jabetzari buruzko eskubide eta arriskuen transferentzia errealik egin. Hala ere, Elkaratea beste klub batzuekin, agenteekin edo jokalariekin harremanetan jarri da, zenbait jokalariren irteera negoziatzeko. Urteko kontuak ixteko datan, ez da taldeko jokalariei baja emateko inguruabarrik gertatu.

b) Lizentziak eta markak

Lizentziek eta markek balio-bizitza mugatua dute, eta haien kostuari metatutako amortizazioa eta aitortutako balio-narriaduragatiko zuzenketak kendu behar zaizkio. Amortizazioa metodo linealaren bidez kalkulatu da, marken eta lizentzien kostua esleitzeko aurreikusten zaien balio-bizitzan zehar (10 urte).

c) Aplikazio informatikoak

Hirugarrenei erositako programa informatikoetarako lizentziak kapitalizatzeko, lizentziak erosteko eta programa espezifikoak erabiltzeko moduan egokitzeko kostuak hartu dira kontuan. Kostu horiek zenbatetsitako balio-bizitzan zehar amortizatzen dira (4 urte).

Programa informatikoen mantentze-lanekin loturiko gastuak egiten direnean eta galdu-irabazien kontuan adierazten direnean, gastutat jotzen dira.

3.2 Ibilgetu materiala

Lagatako instalazioetan egindako inbertsioen kostuari metatutako amortizazioa eta onartutako narriaduragatiko balio-zuzenketen zenbateko metatua kentzearen emaitza ageri da aktiboan.

Epigrafe honetan, Ipuruako futbol-zelaian egindako inbertsioak kontabilizatzen dira.

SOCIEDAD DEPORTIVA EIBAR, S.A.D.

2020KO EKITALDIAREN MEMORIA

(Eurotan adierazita)

Lagatako instalazioetan egindako inbertsioak linealki amortizatzen dira 2028an amaitzen den hitzarmena indarrean dagoen bitartean, salbu eta inbertsioen balio-bizitza kontratua baino laburragoa bada. Horrez gain, Elkarateak estadioa kontra-prestaziorik gabe erabiltzeko eskubideak erregistratuta ditu, ibilgetu moduan eta arrazoizko balioan. Erregistratutako aktibo garbia, zerga-eragina kenduta, "Diru-laguntzak, dohaintzak eta legatuak" epigrafean erregistratutako kapitaleko diru-laguntza bezala, hitzarmenak indarrean irauten duen bitartean amortizatzen da.

Ibilgetu materiala osatzen duten elementuak erosketa-prezioari edo ekoizpen-kostuari metatutako amortizazioa eta onartutako galeren zenbateko metatua kentzearen emaitzaren arabera aitortzen dira.

Enpresak bere ibilgetu materialerako egindako lanak kalkulatzeko, materia kontsumigarriak erosteko prezioa eta ondasunoi egotz dakizkiekeen zuzeneko edo zeharkako kostuak batzen dira.

Ibilgetu materiala osatzen duten ondasunak handitzeko, modernizatzeko edo hobetzeko kostuak ondasunaren baliorik handiena kontuan hartuz sartzen dira aktiboan, haren ahalmen edo edukiera handitzea, emankortasuna hobetzea edo balio-bizitza luzatzea eragiten badute soilik eta, betiere, ordezkatuak izateagatik, erakundeak inbentariotik kendu dituen elementuen kontabilitateko balioa jakin edo kalkulatu badezake.

Konponketa garrantzitsuen kostuak aktibo bihurtu dira eta bakoitzaren aurreikusitako balio-bizitzaren arabera amortizatzen dira. Ohiko mantentze-lanen gastuak, ordea, galdu-irabazien kontuan kargatzen dira, egiten diren ekitaldian.

Amortizatzen ez diren lurrak eta lagatutako instalazioetan egindako inbertsioak alde batera utzita, sistematikoki kalkulatu da ibilgetu materialaren amortizazioa, metodo linealaren bidez, bakoitzaren aurreikusitako balio-bizitzaren arabera, funtzionamenduaren eta erabileraren ondorioz galdutako balioa kontuan hartuz. Hauek dira aurreikusitako balio-bizitzak:

	Aurreikusitako balio-bizitzako urteak
Eraikinak eta estadioak	15
Instalazio teknikoak eta bestelako ibilgetu materiala	8-15

3.3 Saltzeko mantendu diren aktibo ez-arruntak

Elkarateak "Saltzeko mantendu diren aktibo ez-arruntak" epigrafean sailkatzen ditu kontabilitate-balioa, oro har, salmentaren bitartez berreskuratuko duten aktiboak, eta ez beren erabilera jarraituaren bitartez, ondorengo baldintzak betetzen dituztenean:

- Uneko baldintzetan, berehalako salmentarako prest egotea, ohiko salmenta-baldintzen pean.
- Erosle bat bilatzeko beharrezko ekintzak abiarazita egotea.
- Saltzeko aukera ugari izatea, saltzeko mantendutako aktibo ez-arrunt gisa sailkatu zirenetik urte bateko epean.

Saltzeko mantendutako aktiboak baloratzeko, bi zenbateko hauen arteko txikiena hartzen da kontuan: kontabilitate-balioa edo arrazoizko balioa salmenta-kostuak kenduta. Aktibo hauek ez dira amortizatzen eta beharrezkoa bada, balio-zuzenketak aplikatzen zaizkie, haien kontabilitate-balioa ez dadin arrazoizko balioa baino handiagoa izan, salmenta-gastuak kenduta.

Aktibo batek saltzeko mantendutakotzat sailkatzeko baldintzak betetzeari uzten dion unean, bere izaerari dagokion balantzeko partidan birsailkatzen da, eta birsailkatzen den egunean bi balio hauetako txikiaren arabera baloratzen da: edo saltzeko aktibo ez-arrunt bezala sailkatu aurretik zuen kontabilitate-balioa, saltzeko mantendutakotzat sailkatu ez balitz kontabilizatuko ziren amortizazio eta balio-zuzenketekin doitu, halakorik dagoenean; edo balio berreskuragarria. Diferentziak galdu-irabazien kontuan erregistratzen dira, izaeraren arabera dagokien partidan.

Irizpide hau ez da aplikatuko geroraturako zergagatik aktiboetan, enplegatuen lansarietatik sortutako aktiboetan eta finantza-aktiboaren kategoriako taldeko erakundeen, talde anitzeko en eta elkartutako en ondarean egindako inbertsioekin zerikusirik ez duten aktibo guztietan. Aktibo horiek arau berezien arabera baloratzen dira.

SOCIEDAD DEPORTIVA EIBAR, S.A.D.

2020KO EKITALDIAREN MEMORIA

(Eurotan adierazita)

Aktiboaren salmenta gauzatzean ezeztatuko diren lotutako pasiboak badaude, ondorengo epigrafean sailkatuko dira: "Saltzeko mantendu diren aktibo ez-arruntekin lotutako pasiboak".

3.4 Aktibo ez-finantzarioen balioaren narriaduragatiko galerak

Narriaduragatiko galeren probak egiten dira aktiboaren inguruan, gertaera baten edo inguruabarren aldaketa baten ondorioz kontabilitate-balioa berreskurazina izan daitekeenean. Narriaduragatiko galera bat aktiboaren kontabilitate-balioa berreskura daitekeen zenbatekoa baino handiagoa denean jasotzen da. Zenbateko hori bi hauekiko handiena izango da: aktiboaren arazoizko balioa salmenta-kostuak kenduta edo erabilera-balioa. Narriaduragatiko galera izan duten aktibo ez-finantzarioak balantze-data bakoitzean berrikusiko dira, galeraren itzulketak gertatu diren egiaztatzeko.

3.5 Errentamenduak

Errentamenduak operatibo gisa sailkatzen dira errentatzailearen esku geratzen denean errentamenduaren titulartasunaren ondoriozko arriskuen eta onuren zati handi bat. Errentamendu operatiboagatiko ordainketak (errentatzailearengandik jasotako edozein pizgarriren ordainketa garbiak) sortu diren ekitaldiaren galdu-irabazien kontuan kargatzen dira linealki, errentamenduak irauten duen aldiaren.

Finantza-aktiboak

a) Maileguak eta kobratzeko partidak

Maileguak eta kobratzeko partidak eratorri gabeko finantza-aktiboak dira, kobratzeko zenbateko jakina edo jakingarria dutenak eta merkatu aktibo batean kotizatzen ez dutenak. Aktibo arruntekin multzokatzen dira, baldin eta 12 hilabetetik gorako epemuga gainditzen ez badute balantzearen datatik zenbatzen hasita. Kasu horietan, aktibo ez-arrunt moduan sailkatzen dira. Maileguak eta kobratzeko partidak "Merkataritzako zordunak eta kobratzeko beste kontu batzuk" atalean jasotzen dira balantzean.

Hasiera batean, arazoizko balioaren eta, tartean, zuzenean egotz dakizkiekeen transakzio-kostuen arabera baloratzen dira finantza-aktibo hauek, eta, ondoren, kostu amortizatuaren arabera, interes-tasa efektiboaren arabera sortutako interesak onartuz. Interes-tasa efektibotzat hartzen da tresna finantzario baten liburu-balioa eta tresna horren bizitzan zehar espero diren diru-fluxuen balioa berdintzen dituen eguneratze-tasa. Hala eta guztiz ere, merkataritza-eragiketen epemuga urtebete baino laburragoa denean, balio nominalaren arabera baloratzen dira eragiketongatiko kredituak, bai lehen aldiz onartzerakoan, bai ondoren, fluxuak ez eguneratzearen efektua esanguratsua ez bada betiere.

Ekitaldiaren itxieran gutxienez, behar diren balio-zuzenketak egiten dira balioaren galerari dagokionez, objektiboki ikusten bada Elkarteak zor zaizkion zenbateko guztiak kobratuko ez dituela.

Finantza-aktibo horien balio-narriaduraren galeraren zenbatekoa kalkulatzeko, liburu-balioaren eta etorkizuneko diru-fluxu estimatuen balio eguneratuaren arteko diferentzia hartzen da kontuan. Hala, hasierako kontabilizatzean kalkulaturako interes-tasa efektiboaren arabera deskontatzen dira fluxuak. Balio-zuzenketak eta hala badagokio, lehengoratzek, galdu-irabazien kontuan zenbatesten dira.

b) Taldeko enpresen, talde anitzekoen eta elkartuen ondarean egindako inbertsioak

Kostuaren arabera baloratzen dira, eta, balio-narriaduragatiko zuzenketarik egin bada, zuzenketa horien zenbateko metatua kenduta. Hala ere, taldeko, talde anitzeko edo elkartutako enpresa bezala sailkatu aurreko inbertsiorik badago, inbertsio horren kostutzat hartzen da enpresari kalifikazio hori eman aurreko unean zuten kontabilitate-balioa. Ondare garbian zuzenean kontabilizatutako balio-zuzenketak bertan uzten dira bajan ematen diren arte.

Liburu-balioa berreskuratu ezin dela erakusten duen ebidentzia objektiborik badago, behar diren balio-zuzenketa egokiak egiten dira, liburu-balioaren eta zenbateko berreskuragarriaren arteko diferentziari dagokionez. Zenbateko berreskuragarria bi balio hauen arteko handiena da: arazoizko balioa salmenta-kostuak kenduta eta inbertsioaren etorkizuneko diru-fluxuen uneko balioa. Zenbateko berreskuragarria ezagutzeko bide hoberik ezean, inbertsio horien narriadura zenbatesteko, erakunde partaidetuaren ondare garbia hartzen da kontuan, balorazio-datan dituen plusbalio tazituak erantsita. Egiten diren balio-zuzenketak eta, halakorik dagoenean, lehengoratzek, sortu diren ekitaldiaren galdu-irabazien kontuan erregistratzen dira.

SOCIEDAD DEPORTIVA EIBAR, S.A.D.

2020KO EKITALDIAREN MEMORIA

(Eurotan adierazita)

Elkarteak ez du urteko kontu finkorik formulatzen, ez baitu horretarako betekizunik abenduaren 17ko 1159/2010 Errege Dekretuan xedatutakoaren arabera, taldearen ondarearen irudi leialari, finantza-egoerari eta taldeko elkarteen emaitzei buruzko interes esanguratsurik ez duten menpeko beste erakunde batzuetan parte hartzeagatik.

3.7 Izakinak

Izakinak baloratzeko, honako hauen artean txikiena hartzen da kontuan: kostua edo balio bihurtu garbia. Izakinen balio garbi bihurtu garbia baina txikiagoa denean, egin beharreko balio-zuzenketak egiten dira, eta gastu gisa islatzen dira galdu-irabazien kontuan. Balioaren zuzenketa eragin duten inguruabarrak desagertzen badira, zuzenketaren zenbatekoa lehengoratu da eta diru-sarrera gisa islatzen da galdu-irabazien kontuan.

3.8 Ondare garbia

Akzio arruntek ordezkatzeko dute kapital soziala.

Elkartearen berezko akzioak erosteari dagokionez, ordaindutako kontraprestazioa, zuzenean egotz dakizkiokeen kostu gehigarriak barne, ondare garbitik kentzen da, kitatu, berriz jaulki edo besterentzen den arte.

3.9 Finantza-pasiboak

Zorrak eta ordaintzeko partidak

Kategoria honek merkataritzako eragiketengatik eta merkataritzakoak ez diren eragiketengatik zorrak barne hartzen ditu. Pasibo arruntzat sailkatzen dira kanpo-baliabide horiek, Elkarrekin haien kitapena, gutxienez, hamabi hilabetez geroratzeko baldintzarik gabeko eskubidea duenean izan ezik, balantzearen datatik zenbatzen hasita.

Zor horiek, hasiera batean, zuzenean egotz dakizkiokeen transakzio-kostuen arabera doitutako arrazoizko balioari aitortzen zaizkio, eta, ondoren, amortizatutako kostuaren arabera erregistratzen dira, interes-tasa efektiboaren metodoa aplikatuta. Interes efektibotzat jotzen da tresna finantzario baten liburu-balioa eta tresna horren bizitzan zehar espero diren ordainketen fluxu estimatuen balioa berdintzen dituen eguneratze-tasa.

Hala eta guztiz ere, merkataritza-eragiketen epemuga urtebete baino laburragoa denean, balio nominalaren arabera baloratzen dira eragiketengatik kredituak, bai lehen aldiz onartzerakoan, bai ondoren, fluxuak ez eguneratzearen efektua esanguratsua ez bada betiere.

3.10 Jasotako diru-laguntzak

Itzuli beharreko diru-laguntzak pasibo moduan erregistratzen dira, itzuli beharrekoak izateari uzteko baldintzak betetzen ez dituzten bitartean. Itzuli behar ez diren diru-laguntzak, aldiz, zuzenean ondare garbira egotzitako diru-sarrera gisa erregistratzen dira, eta hala, diru-sarrera moduan aitortzen dira, oinarri sistematiko eta arrazional baten gainean eta diru-laguntzari lotutako gastuekin erlazioan. Bazkideek emandako itzuli beharrik gabeko diru-laguntzak fondo propioetan erregistratzen dira zuzenean, zerga-eraginik gabe.

Ondore horietarako, diru-laguntzak itzuli behar ez direla ulertzen da diru-laguntza emateko akordio individualizatu bat egiten denean, ezarritako baldintza guztiak betetzen direnean eta jasoko dela pentsatzeko arrazoizko zalantzarik ez dagoenean.

Diruzko diru-laguntzak emandako zenbatekoaren arrazoizko balioaren arabera baloratzen dira, eta diruzkoak ez direnak, berriz, hartutako ondasunaren arrazoizko balioaren arabera, bi balioen erreferentzia izanik kontabilizatzen diren unekoa.

Ibilgetu ukiezina edo materiala erosterekin lotutako itzuli beharrik gabeko diru-laguntzak ekitaldiaren diru-sarrera moduan egotzen dira dagokien aktiboen amortizazioaren proportzioan edo, bestela, besterentzen direnean, balio-zuzenketak egiten direnean edo balantzean baja ematen zaienean. Bestalde, gastu espezifikoak finantzatzeko itzuli beharrik gabeko diru-laguntzak gastuok sortzen diren ekitaldiaren galdu-irabazien kontuan aitortzen dira eta ustiapeneko defizita konpentsatzeko ematen direnak diru-laguntza ematen den ekitaldian kontabilizatzen dira, ez baldin badira erabiltzen etorkizuneko ustiapeneko defizitak finantzatzeko, kasu horretan ekitaldi horietara egotziko baitira.

3.11 Zerga arruntak eta geroratuak

SOCIEDAD DEPORTIVA EIBAR, S.A.D.

2020KO EKITALDIAREN MEMORIA

(Eurotan adierazita)

Mozkinen gaineko zergaren ondoriozko gastua (diru-sarrera) da ekitaldi batean sortutako kontzeptu horren ondoriozko zerga arruntak eta zerga geroratuak eragindako gastuak (diru-sarrerak) barne hartzen dituen zenbatekoa.

Zerga arruntek zein geroratuak eragindako gastua (diru-sarrera) galdu-irabazien kontuan erregistratzen da. Hala ere, ondare gabian kontabilizatzen da zuzenean ondare gabian erregistratzen diren partidekin lotutako zerga-eragina.

Zerga arruntaren ondoriozko aktiboak eta pasiboak, agintari fiskalengandik kobratzea edo haiei ordaindu behar izatea espero den kopuruaren arabera baloratzen dira, ekitaldia ixten den egunean indarrean dagoen edo onartu eta argitaratzeko dagoen araudiaren arabera.

Geroratutako zergak pasiboaren metodoaren arabera kalkulatu dira, aktiboen eta pasiboen zerga-oinarrien eta liburu-balioen artean sortzen diren denborazko aldean gainean. Geroratutako zergak, ordea, ez dira kontabilizatzen transakzioaren unean kontabilitate-emaitzari eta zerga-oinarriari eragiten ez dioten negozioen konbinazioaz bestelako transakzio bateko aktibo edo pasibo baten hasierako aitortpenetik sortzen badira. Geroratutako zerga zehazteko, balantzearen datan onartuta edo onartzean dauden eta geroratutako zergaren ondoriozko aktiboa gauzatzen denean edo geroratutako zergaren ondoriozko pasiboa likidatzen denean aplikatzea espero diren araudia eta zerga-tasak aplikatzen dira.

Geroratutako zergen ondoriozko aktiboak denborazko aldeak konpentsatzeko moduko etorkizuneko zerga-irabaziak edukitzeko aukerak dituzten heinean aitortzen dira.

3.12 Langileentzako prestazioak

a) Ekarpen definituko pentsioen ondoriozko konpromisoak

Elkarteak kanpo-mailan kudeatzen den Borondatezko Gizarte Aurreikuspeneko Erakunde bati ekarpenak egiten dizkio.

Ekarpen definitutako plan baten bidez, Elkarrekin ekarpen finkoak egiten dizkio beste erakunde bati, eta ez du ekarpen gehigarriarik egiteko inolako obligaziorik, legez, kontratuz edo inplizituki, bereizitako erakundeak bere gain hartutako konpromisoak betetzeko behar adina aktibo ez badu.

Ekarpenak ordaindu ondoren, Elkarrekin ez du ordainketa gehigarriarik egin behar. Ekarpenak sortzen direnean, langileentzako prestazio gisa aitortzen dira.

Elkarrekin egin beharreko ekarpenen ondoriozko pasibo bat aitortzen du, ekitaldi-itxieran, sortu eta oraindik ordaindu gabeko ekarpenak daudenean.

b) Kargua uzteagatik kalte-ordainak

Elkarrekin erretiratzeko adina bete aurretik kontratua deuseztatzea erabakitzen duenean edo langileak prestazio horien truke lanpostua uztea onartzen duenean ordaintzen dira kargua uzteagatik kalte-ordainak. Elkarrekin prestazio horiek aitortzen ditu plan formal xehatu baten bidez langileak kargugabetzeko edo borondatez lana utz dezaten egindako eskaintza baten ondorioz kalte-ordainak emateko konpromisoa modu frogagarrian hartu duenean. Balantzearen egunetik hasi eta hurrengo hamabi hilabeteen barruan ordainduko ez diren prestazioak oraingo balioan deskontatzen dira.

c) Antzinasun-saria eta primak

Elkarrekin langileek sortutako primetarako pasibo bat eta gastu bat aitortzen ditu, bai eta erakundean sei urte baino gehiago daramaten jokalarien antzinasun-sarietarako ere, Futbol Profesionaleko Liga Nazionalak eta Espainiako Futbolariaren Elkarrekin egindako hitzarmenaren arabera. Elkarrekin hornidura bat onartzen du kontratu bidez nahitaezkoa denean edo iraganeko jarduerak bete behar inplizitu bat sortu duenean.

d) Langileen gastua

Elkarrekin ondorengo kategoriak bereizten ditu langileen gastuari dagokionez:

SOCIEDAD DEPORTIVA EIBAR, S.A.D.

2020KO EKITALDIAREN MEMORIA

(Eurotan adierazita)

- Kirol arlokoak ez diren langileen gastua:

-Kirol arlokoak ez diren langile teknikoak: kirol zuzendariaren eta idazkari teknikoaren soldata-gastuak barne hartzen ditu, besteak beste.

-Kirol arlokoak ez diren beste langile batzuk: Elkartearekin lan-kontratua duten gainerako langileak biltzen ditu, besteak beste, zuzendariak eta administrazio, marketin, komunikazio, mantentze-lan eta garbiketa arloetako langileak.

- Kirol-lantaldearen gastua:

Kirol-lantaldearen gastutzat jotzen dira mota guztietako kontraprestazioak (soldatak, lansariak, irudi-eskubideengatiko ordainsariak, kalte-ordainak, gauzazko ordainsariak, kontraprestazio irregularrak, etab.), enpresak ordaindu beharreko Gizarte Segurantza, prima kolektiboak eta bestelakoak. Era berean, kirol-lantaldeari lotutako gastu gisa kontabilizatzen dira jokalariek erosteko eskubideen amortizazioaren zenbatekoak eta horien narriaduraren ondoriozkoak, galdu-irabazien kontuaren "Ibilgetuaren amortizazioa" eta "Ibilgetua besterentzeagatiko narriadura eta emaitza" epigrafeetan sailkatzen direnak, hurrenez hurren.

Lagapenean jasotako edo entregatutako jokalariei dagokienez, lagapenek eragindako gastu eta diru-sarrera guztiak barne hartzen dira, galdu-irabazien kontuaren ondorengo epigrafeetan sailkatutakoak: "Ustiapeneko bestelako gastuak – Kudeaketa arruntaren bestelako gastuak" eta "Ustiapeneko bestelako diru-sarrerak – Diru-sarrera osagarriak eta kudeaketa arrunteko beste diru-sarrera batzuk".

Partida honen barruan, honako hauen arteko bereizketa egiten da:

-LFP-n inskriba daitekeen kirol-lantaldearen gastua: LFP-n inskriba daitekeen kirol-lantaldea osatzen dute lan-kontratuaren bidez Klubari lotutako lehen taldeko jokalariek (hau da, 1etik 25era arteko dortsala dutenek, biak barne), lantalde bati atxikita ez dauden jokalariek eta lehen taldeko entrenatzaileak, bigarren entrenatzaileak eta prestatzaile fisikoak.

-LFP-n inskriba ezin daitekeen kirol-lantaldearen gastua: LFP-n inskriba ezin daitekeen kirol-lantaldea osatzen dute laneko edo bestelako kontratu baten bidez Klubari lotutako gainerako jokalariek, hau da, Klubaren gainerako taldeei, filialari edo Klubaren menpe dagoen edozein mailako taldeei atxikitakoek, bai eta talde horietako entrenatzaileak, bigarren entrenatzaileak, prestatzaile fisikoak, medikuek, ordezkariak, fisioterapeutek edo zaintzaileak.

3.13 Hornidurak eta pasibo kontingenteak

Berregituratzearekin eta auziekin lotutako kostuetarako hornidurak aitortzen dira Elkartek iraganeko gertakarien ondoriozko eginbehar bat duenean, legezkoa zein inplizitua, eginbehar hori likidatzeko baliabideak atera behar izatea gerta daitekeenean, eta zenbatekoa modu fidagarrian zenbatesteko modua dagoenean edo etorkizuneko ustiapenen galeretarako horniketak aitortzen direnean.

Urtebete edo gutxiagoko epemuga duten eta eragin finantzario esanguratsurik ez duten hornidurak ez dira deskontatzen.

Hornidura likidatzeko ordaindu beharreko diruaren zati bat hirugarren batek itzultzea espero denean, diru-itzultze hori aktibo independente gisa aitortzen da, betiere, dirua jasotzeko segurtasuna badago.

Iraganeko gertakarien ondorioz sor daitezkeen eginbeharrak pasibo kontingente gisa aitortzen dira, Elkartearen borondatearekin zerikusirik ez duen gertakari batek edo gehiagok baldintzatzen badute horien betekizuna. Pasibo kontingente horiek ez dira kontabilitatean erregistratzen, eta xeheki aurkezten dira memorian.

3.14 Diru-sarrerak aitortzea

Diru-sarrerak Elkartearen ohiko jardueretan entregatutako ondasunen eta emandako zerbitzuen truke kobratuko diren zenbatekoak ordezkatzeko dituzte (itzulketak, beherapenak, deskontuak eta balio erantsiaren gaineko zerga kenduta) eta horiek erregistratzeko, jasoko den kontraprestazioaren arrazoizko balioa kontuan hartzen da.

Elkartek diru-sarrerak aitortzen ditu horien zenbatekoa fidagarritasunez balioztatu ahal denean, etorkizuneko mozkin ekonomikoak Elkartera pasatzeko aukerak daudenean eta jarduera bakoitzerako berariazko baldintzak

SOCIEDAD DEPORTIVA EIBAR, S.A.D.

2020KO EKITALDIAREN MEMORIA

(Eurotan adierazita)

betetzen direnean, ondoren zehaztuko den modura. Diru-sarreraren balioztapen fidagarri bat egiteko, Elkartek uste du salmentarekin lotutako kontingentzia guztiak ebatzi behar direla aldez aurretik.

Era berean, diru-sarrera bat aitortu aurretik, ondorengo kontabilizazio-irizpideak bete behar dira:

- Emankizunen ondoriozko diru-sarrerak: produkzioaren eta erakunde ezberdinei egindako ekarpenak kenduta erregistratzen dira, modu linealean, sortzen diren denboraldian, 5/2015 Errege Lege Dekretuak telebista-eskubideen ustiapenaren inguruan ezarritakoari jarraikiz.
- Bazkideen eta estadioaren diru-sarrerak: sortzen diren denboraldian erregistratzen dira.
- Lagunartekoen eta marketin-lehiaketaren diru-sarrerak: sortzen diren denboraldian kontabilizatzen dira.
- Interesen ondoriozko diru-sarrerak: galdu-irabazien kontuaren "Diru-sarrera finantzarioak" epigrafearen arabera interesa sortutako moduan kontabilizatzen dira.
- Jokalariak transferitzearen ondoriozko diru-sarrerak: jokalariak transferitzeko kontratuan ezarritako baldintza guztiak bete direnean eta jokalariaren kontrola transferitu denean kontabilizatzen dira. Galdu-irabazien kontuaren "Ibilgetua besterentzeagatik narriadura eta emaitza" epigrafean erregistratzen dira.
- Kudeaketako bestelako diru-sarrerak: utzita dauden jokalarietatik jasotako diru-sarrerak sortzen diren heinean kontabilizatzen dira.

3.15 Lotura duten alderdien arteko transakzioak

Oro har, lotura duten alderdien arteko eragiketak hasierako unean kontabilizatzen dira, arrazoizko balioan. Adostutako prezioa eta arrazoizko balioa berdinak ez badira, eragiketaren errealitate ekonomikoa kontuan hartzen da diferentzia erregistratzeko. Ondorengo balorazioa dagozkion arauetan aurreikusten den bezala egiten da.

3.16 Eskudirua eta beste aktibo likido baliokide batzuk

Epigrafe honetan, kutxan dagoen eskudirua, bankuetako kontu korranteak eta aktiboen deposituak eta aldi baterako eskuratzeak jasotzen dira, honako baldintza guztiak betetzen badituzte:

- Eskudiru bilakatu ahal izatea.
- Eskuratzeko unean, hiru hilabetetik gorako epemuga ez izatea.
- Balio-aldaketa pairatzeko arrisku esanguratsurik ez izatea.
- Elkartearen diruzaintzaren ohiko kudeaketa politikaren parte izatea.

4. Finantza-arriskuaren kudeaketa

4.1 Finantza-arriskuaren faktoreak

Hainbat finantza-arriskuk dute eragina Elkartearen ekintzetan: merkatu-arriskua, kreditu-arriskua eta likidezia-arriskua. Elkartearen finantza-arriskuaren kudeaketak finantza-merkatuen ziurgabetasuna du ardatz, eta finantza-errentagarritasunaren gaineko balizko eragin kaltegarriak murrizten saiatzen da. Elkartek ez du deribatutik erabiltzen arriskuak estaltzeko.

Elkartearen Ekonomia eta Finantza Sailak kontrolatzen du arriskuaren kudeaketa, eta finantza-arriskuak identifikatzen, ebaluatzen eta estaltzen ditu, bere Zuzendaritza Nagusiak eta Administrazio Kontseiluak onartutako politikak ezarritakoari jarraituz. Izan ere, arriskua kudeatzeko politika orokorra ez ezik, eremu zehaztarako politikak ere ezartzen baitituzte atal horiek; hala nola: interes-tasaren arriskuari, likidezia-arriskuari, deribatuak eta ez-deribatuak erabiltzeari eta gehiegizko likidezia inbertitzeari buruzkoak.

a) Merkatu-arriskua

(i) Kanbio-tasaren arriskua

Elkartek, oro har, Europar Batasunaren barruan jarduten du eta eurotan egiten ditu eragiketa gehienak. Beraz, ez dago dibisadun eragiketengatik kanbio-tasaren arriskurik.

(ii) Prezio-arriskua

SOCIEDAD DEPORTIVA EIBAR, S.A.D.

2020KO EKITALDIAREN MEMORIA (Eurotan adierazita)

Elkarteak ez du zorren edo kapitalaren tituluen prezio-arriskurik, ez baitu kotizatutako finantza-aktiborik.

(iii) Eskudiruzko fluxuen interes-tasaren eta arrazoizko balioaren arriskua

Finantza-erakundeetan finantza-produktuetan inbertitutako baliabideetatik sortzen da, batez ere, Elkartearen interes-tasaren arriskua. Jasotako interesak oso aldagarriak dira eta merkatu-tasak hartzen dituzte oinarri. Zehazki, Elkartearen inbertsio-politikak 2 puntutan ezarri du gehieneko arriskuko posizioa (7 puntutik) finantza-tresnen kontratatzeari dagokionez, arrazoizko balioan aldatetak gertatzeko arriskua ahalik eta gehien murrizteko helburuz.

b) Kreditu-arriskua

Multzoka kudeatzen da kredituaren arriskua. Kreditu-arriskua eskudirutik eta eskudiruaren baliokideetatik, tresna finantzario deribatuetatik eta bankuetako eta finantza-erakundeetako gordailuetatik, bai eta bezeroetatik sortzen da, eta, tartean, kobratzeko dauden kontuetatik eta hitzartutako transakzioetatik.

Elkartearen inbertsio-politika dela eta, kreditu-arriskua ez da garrantzizkotzat jotzen banku eta finantza-erakundeei dagokienez. Eskudirua eta eskudiruaren baliokideak ospe eta kaudimen handiko finantza-erakundeetan bermatutako finantza-produktuetan inbertitzen dira.

Hirugarrenekin kobratu beharreko kontuen arriskuari dagokionez, Finantza Sailak bezeroaren kreditu-kalitatea ebaluatzen du, haren finantza-egoera, iraganeko esperientzia eta beste faktore batzuk kontuan hartuta, bai eta kalifikazio independenteak ere, halakorik eskuragarri egotekotan. Mugaeguneratutako kredituak telefonoz, posta elektronikoz eta Merkataritza Sailaren bidez kudeatzen dira, bezeroaren ordainketa-egutegi bat lortu arte.

Elkarteak hileroko kontrolak egiten ditu gauzatu gabeko ordainketak hautemateko.

Zuzendaritzak ez du espero kobratzeko aipatutako kontu horietakorik ez betetzeagatik galerarik izango denik.

c) Likidezia-arriskua

Arrisku hau arintzeko, berehala eskura daitezkeen inbertsioak egiten ditu Elkarteak.

Onartzen da merkataritzako eragiketetako kreditu eta zorren liburu-balioa arrazoizko baliora hurbiltzen dela. Informazio finantzarioa aurkezteko, Elkarteak antzeko finantza-baliabideetarako erabilgarri izan dezakeen merkatuko interes-tasa arruntari etorkizuneko kontratuzko fluxuak kenduta estimatzen da finantza-pasiboen arrazoizko balioa.

4.2 Arrazoziko balioa estimatzea

Onartzen da merkataritzako eragiketetako kreditu eta zorren liburu-balioa arrazoizko baliora hurbiltzen dela. Informazio finantzarioa aurkezteko, Elkarteak antzeko finantza-baliabideetarako erabilgarri izan dezakeen merkatuko interes-tasa arruntari etorkizuneko kontratuzko fluxuak kenduta estimatzen da finantza-pasiboen arrazoizko balioa.

SOCIEDAD DEPORTIVA EIBAR, S.A.D.

2020KO EKITALDIAREN MEMORIA (Eurotan adierazita)

5. Ibilgetu ukiezina

Honako hauek dira ibilgetu ukiezinan sartutako partiden xehetasunak eta mugimenduak:

	Euro				
	Jokalariak erosteko eskubideak	Patenteak, lizentziak eta markak	Aplikazio informatikoak	Uneko ibilgetua eta aurrerakinak	Guztira
Saldoa 2018-06-30ean	8.470.107,48	-	31.719,50	2.375.000,00	10.876.826,98
Kostua	16.927.500,00	1.988,35	64.533,71	2.375.000,00	19.369.022,06
Metatutako amortizazioa	(7.767.737,35)	(1.988,35)	(32.814,21)	-	(7.802.539,91)
Narriadura	(689.655,17)	-	-	-	(689.655,17)
Kontabilitate-balioa	8.470.107,48	-	31.719,50	2.375.000,00	10.876.826,98
Altak	3.000.000,00	-	-	3.625.000,00	6.625.000,00
Bajak	(3.377.500,00)	-	-	-	(3.377.500,00)
Jokalariak erosteko eskubideetarako intsuldaketak	2.375.000,00	-	-	(2.375.000,00)	-
Bajak metatutako amortizazioa	2.159.623,01	-	-	-	2.159.623,01
Amortizaziorako hornidura	(4.725.178,85)	-	(18.152,94)	-	(4.743.331,79)
Narriaduragatiko hornidura	(172.413,80)	-	-	-	(172.413,80)
Saldoa 2019-06-30ean	7.729.637,84	-	13.566,56	3.625.000,00	11.368.204,40
Kostua	18.925.000,00	1.988,35	64.533,71	3.625.000,00	22.616.522,06
Metatutako amortizazioa	(10.333.293,19)	(1.988,35)	(50.967,15)	-	(10.386.248,69)
Narriadura	(862.068,97)	-	-	-	(862.068,97)
Kontabilitate-balioa	7.729.637,84	-	13.566,56	3.625.000,00	11.368.204,40
Altak	9.550.000,00	-	-	-	9.550.000,00
Bajak	(5.650.000,00)	-	-	-	(5.650.000,00)
Jokalariak erosteko eskubideetarako intsuldaketak	3.625.000,00	-	-	(3.625.000,00)	-
Saltzeko mantendu diren aktibo ez-arruntetarako intsuldaketak	(2.400.000,00)	-	-	-	(2.400.000,00)
Bajak metatutako amortizazioa	3.601.160,59	-	-	-	3.601.160,59
Amortizaziorako hornidura	(6.760.612,18)	-	(11.275,37)	-	(6.771.887,55)
Narriaduragatiko hornidura	(2.634.622,81)	-	-	-	(2.634.622,81)
Saldoa 2020-06-30ean	7.060.563,44	-	2.291,19	-	7.062.854,63
Kostua	17.150.000,00	1.988,35	64.533,71	-	17.216.522,06
Metatutako amortizazioa	(10.089.436,56)	(1.988,35)	(62.242,52)	-	(10.153.667,43)
Narriadura	-	-	-	-	-
Kontabilitate-balioa	7.060.563,44	-	2.291,19	-	7.062.854,63

a) Jokalariak erosteko eskubideak

Atal honetan sartzen dira jokalarien federazio-eskubideak erosteko ordaindutako zenbatekoak. Linealki amortizatzen dira, jokolari bakoitzaren federazio-kontratuen iraupenaren arabera. Ekitaldiren batean kostu osagarriren bat gehitu bada, kontratuari geratzen zaion indarraldiko denboraren arabera amortizatuko da gehikuntza hori.

Alta moduan erregistratutako 9.550.000 euroko zenbatekoa (3.000.000 euro, 2019ko ekainaren 30ean) ondorengo jokalarien eskubide federatibo eta ekonomikoen erosketari dagokio nagusiki: Enrique González, Eduardo Expósito eta Takashi Inui (Sergio Álvarez eta Pablo de Blasis 2019ko ekitaldian). Modu osagarrian, aurrerakinetan sartuta zeuden behin betiko altak gauzatu dira, 3.625.000 euroko zenbatekoarekin.

2020ko ekitaldian, 6 jokalariren bajak kontabilizatu dira, 5.650.000,00 euroko zenbatekoarekin (3.377.500,00 euro 2019ko ekainaren 30ean). Baja horiek eragindako emaitza galdu-irabazien kontuko "Ibilgetua besterentzeagatiko narriadura eta emaitza" epigrafean dago jasota (17.e oharra).

SOCIEDAD DEPORTIVA EIBAR, S.A.D.

2020KO EKITALDIAREN MEMORIA (Eurotan adierazita)

2020ko ekainaren 30ean, berriz sailkatu dira 3.3. oharrean zehaztutako baldintzak betetzen ez dituzten aktiboak eta "Saltzeko mantendu diren aktibo ez-arruntak" epigrafean sartu dira. Hala, beharrezkoa izan den kasuetan eta urteko kontuak formulatu arte dagoen informazio onenean oinarrituta, arrazoizko balioaren zuzenketa bat egin da, 2.634.622,81 euroko guztizko zenbatekoarekin. Beraz, birsailkatutako zenbateko garbia 2.400.000,00 eurokoa izan da.

2020ko ekainaren 30ean, kontratuen batez besteko iraupena 2,5 urtekoa da (2 urte 2019ko ekainaren 30ean).

Kasu askotan, lehen taldeko jokalarien kontratuek konfidentzialtasun-klausulak dituzte eta horregatik ez da horiei buruzko informazio zehatzik ematen maila indibidualean. Nolanahi ere, azpimarratzekoa da 2020ko ekainaren 30eko balantzeko "Ibilgetu ukiezina" epigrafean ageri den zenbatekoa hamabi jokalariren federazio-eskubideak eskuratzeko kostuei dagokiela; 2019ko ekainaren 30ean, berriz, hamabost jokolari barne hartzen zituen. Aipatutako kontratuen epemuga 2021eko ekainaren 30aren eta 2022ko ekainaren 30aren artean kokatzen da.

b) Narriaduraren ondoriozko galerak

2020ko ekitaldian zehar, Elkartek 2.634.622,81 euroko zenbatekoa duten narriaduragatiko balio-zuzenketak kontabilizatu ditu (172.413,80 2019ko ekitaldian).

c) Erabat amortizatutako ondasunak

2020ko ekainaren 30ean, erabat amortizatu diren eta oraindik erabiltzen diren aktiboak daude, 12.067,81 euroko kostu originalarekin (12.067,81 euro 2019an).

d) Aseguruak

Hainbat aseguru-poliza ditu kontratatuta Elkartek, ibilgetu ukiezinaren ondasunekin lotutako arriskuak estaltzeko. Poliza horien estaldura nahikoa dela irizten da.

6. Ibilgetu materiala

Honako hauek dira ibilgetu materialean sartutako partiden xehetasunak eta mugimenduak:

	Estadioak eta kirol-pabilioiak	Instalazio teknikoak eta bestelako ibilgetu materiala	Uneko ibilgetua eta aurrerakinak	Guztira
Saldoa 2018-06-30ean	4.834.988,63	1.283.680,88	-	6.118.669,51
Kostua	12.082.394,49	2.654.966,94	-	14.737.361,43
Metatutako amortizazioa	(7.247.405,86)	(1.371.286,06)	-	(8.618.691,92)
Kontabilitate-balioa	4.834.988,63	1.283.680,88	-	6.118.669,51
Altak	853.460,86	30.444,00	2.852.112,59	3.736.017,45
Amortizaziorako hornidura	(484.838,93)	(211.793,42)	-	(696.632,35)
Saldoa 2019-06-30ean	5.203.610,56	1.102.331,46	2.852.112,59	9.158.054,61
Kostua	12.935.855,35	2.685.410,94	2.852.112,59	18.473.378,88
Metatutako amortizazioa	(7.732.244,79)	(1.583.079,48)	-	(9.315.324,27)
Kontabilitate-balioa	5.203.610,56	1.102.331,46	2.852.112,59	9.158.054,61
Altak	10.962.587,79	691.544,34	-	11.654.132,13
Intsuldaketak	2.852.112,59	-	(2.852.112,59)	-
Amortizaziorako hornidura	(1.124.098,86)	(311.102,64)	-	(1.435.201,50)
Saldoa 2020-06-30ean	15.042.099,49	1.482.773,16	-	16.524.872,65
Kostua	23.898.443,14	3.376.955,28	-	27.275.398,42
Metatutako amortizazioa	(8.856.343,65)	(1.894.182,12)	-	(10.750.525,77)
Kontabilitate-balioa	15.042.099,49	1.482.773,16	-	16.524.872,65

Estadioak eta kirol-pabilioiak

SOCIEDAD DEPORTIVA EIBAR, S.A.D.

2020KO EKITALDIAREN MEMORIA

(Eurotan adierazita)

“Estadioak eta kirol-pabilioiak” epigrafeak lagatako instalazioetan egindako inbertsioen gaineko eskubideak biltzen ditu, Ipuruako kirol-instalazioetan egindako inbertsioei buruzkoak. Hain zuzen, Eibarko Udalak 1998ko martxoaren 4an laga zion estadioaren erabilera Elkarteari 30 urterako.

Aurreko ekitaldietan, Elkarreak 3.055.631,00 euroko diru-laguntza jaso zuen, Futbol Profesionaleko Liga Nazionalaren (LNFP) eta Justiziako, Barne Arazoetako eta Hezkuntza eta Zientziako Ministerioen arteko hitzarmenaren esparruan, estadioa 769/93 Errege Dekretura egokitzeko. Diru-laguntza hori ekitaldi ekonomiko bakoitzeko diru-sarrerei egozteko, haren xede izan ziren elementuen amortizazioa hartuko da kontuan. Ekitaldiaren itxiera-datan galdu-irabazien kontuan egotzi beharreko diru-laguntzaren zenbatekoa, zerga-eragina kenduta, 612.210,88 eurokoa da (677.674,24 euro 2019ko ekainaren 30ean) (14. oharra).

Epigrafe honetan erregistratutako ondasunak linealki amortizatzen dira hitzarmenak irauten duen bitartean (2028an amaitzen da), Barne Kontroleko Unitateko instalazioak salbu (U.C.O.). Azken horiek 7 urteko balio-bizitza oinarri hartuta amortizatu dira.

2020ko ekitaldian, Elkarreak 550.000 euroko ekarpena jaso du Gipuzkoako Foru Aldundiaren eskutik, Ipuruako estadioaren mendebaldeko tribuna birmoldatzeko. (14. oharra).

Epigrafe honetan alta gisa kontabilizatutako zenbatekoak, oro har, Ipuruako estadioaren mendebaldeko eta ekialdeko tribunak eraberritzeko lanei dagozkie. Modu osagarrian, Elkarreak estadioa kontraprestaziorik gabe erabiltzeko eskubidea du erregistratuta, 457.720,29 euroko zenbatekoarekin (503.918,73 euro 2019ko ekainaren 30ean) (14. oharra).

b) Narriaduraren ondoriozko galerak

2020ko eta 2019ko ekitaldietan zehar, ez da ibilgetu materialekin lotutako narriaduragatiko balio-zuzenketa esanguratsurik aitortu edo lehengoratu.

c) Erabat amortizatutako ondasunak

2020ko ekainaren 30ean, erabat amortizatu diren eta oraindik erabiltzen diren aktiboak daude, 5.806.412,62 euroko kostu originalarekin (5.769.259 euro 2019an).

d) Aseguruak

Hainbat aseguru-poliza ditu kontratatuta Elkarreak, ibilgetu materialaren ondasunekin lotutako arriskuak estaltzeko. Poliza horien estaldura nahikoa dela irizten da.

7. Finantza-baliabideen azterketa

7.1 Kategorien arabera azterketa

“Finantza-baliabideak” erregistratzeko eta baloratzeko arauan ezarritako finantza-baliabideen kategoria bakoitzeko liburuetan (eskudirua eta beste aktibo likido baliokide batzuk salbu), ondorengo balioa ageri da:

	Euro					
	Epe luzerako finantza-aktiboak					
	Ondare-baliabideak		Zorra adierazten duten balioak		Beste batzuk	
	2020	2019	2020	2019	2020	2019
Maileguak eta kobratzeko partidak (8. oharra)	-	-	-	-	33.041.751,62	4.530.000,00
	-	-	-	-	33.041.751,62	4.530.000,00

SOCIEDAD DEPORTIVA EIBAR, S.A.D.

2020KO EKITALDIAREN MEMORIA

(Eurotan adierazita)

	Epe laburrerako finantza-aktiboak					
	Ondare-baliabideak		Zorra adierazten duten balioak		Beste batzuk	
	2020	2019	2020	2019	2020	2019
Maileguak eta kobratzeko partidak (8. oharra)	2.581,34	2.581,34	1.494.974,73	1.032,88	17.540.605,33	30.982.900,86
	2.581,34	2.581,34	1.494.974,73	1.032,88	17.540.605,33	30.982.900,86

	Euro			
	Kiroi-erakundeekin zorrak		Epe laburrerako finantza-pasiboak	
	2020	2019	2020	2019
Zorrak eta ordaintzeko partidak (15. oharra)	1.885.618,03	3.541.441,38	7.167.979,60	3.698.346,15
	1.885.618,03	3.541.441,38	7.167.979,60	3.698.346,15

7.2 Mugaegunen arabera azterketa

Hona hemen mugaegun jakin edo jakingarria duten zorren zenbatekoak, muga-urteen arabera sailkatuta:

7.2.1 Mugaegunen arabera azterketa 2020ko ekainaren 30ean:

	Euro		
	Finantza-aktiboak		
	2021	Ondorengo urteak	Guztira
Maileguak eta kobratzeko partidak (8. oharra)	19.038.161,40	33.041.751,62	51.885.475,12
	19.038.161,40	33.041.751,62	51.885.475,12

	Euro		
	Finantza-pasiboak		
	2021	Ondorengo urteak	Guztira
Zorrak eta ordaintzeko partidak (15. oharra)	9.053.597,63	-	9.053.597,63
	9.053.597,63	-	9.053.597,63

7.2.2 Mugaegunen arabera azterketa 2019ko ekainaren 30ean:

	Euro		
	Finantza-aktiboak		
	2020	Ondorengo urteak	Guztira
Maileguak eta kobratzeko partidak (8. oharra)	30.986.515,08	4.530.000,00	35.516.515,08
	30.986.515,08	4.530.000,00	35.516.515,08

SOCIEDAD DEPORTIVA EIBAR, S.A.D.

2020KO EKITALDIAREN MEMORIA (Eurotan adierazita)

	Euro		
	Finantza-pasiboak		
	Ondorengo		
	2020	urteak	Guztira
Zorrak eta ordaintzeko partidak (15. oharra)	7.239.787,53	-	7.239.787,53
	7.239.787,53	-	7.239.787,53

8. Maileguak eta kobratzeko partidak

	Euro	
	2020	2019
Maileguak eta kobratzeko partidak, epe luzera:		
Fidantzak	1.530.000,00	1.530.000,00
Bestelako finantza-inbertsioak	25.428.001,62	3.000.000,00
Kirol-erakundeei emandako kredituak	6.083.750,00	-
	<u>33.041.751,62</u>	<u>4.530.000,00</u>
Maileguak eta kobratzeko partidak, epe laburrera:		
Taldeko enpresei eta enpresa bazkideuei emandako kredituak	2.581,34	2.581,34
Gordailuak	204.602,45	204.602,45
Fidantzak	73.350,29	206.737,79
Zorrak adierazten dituzten balioak	1.494.974,73	1.032,88
Eperako ezarpenak eta bestelako finantza-inbertsioak	-	22.711.223,62
Kirol-erakundeei emandako kredituak	14.284.441,98	6.244.459,48
Merkataritza-kredituak	2.764.323,19	1.359.257,30
Hartzekodunei emandako aurrerakinak	15.000,00	36.625,19
Pertsonala	74.454,49	290.000,00
Zerga arruntagatiko aktiboak (16.2. oharra)	194.437,90	-
Balioaren narriaduragatiko horniketak	(70.004,97)	(70.004,97)
	<u>19.038.161,40</u>	<u>30.986.515,08</u>
	<u>52.079.913,02</u>	<u>35.516.515,08</u>

“Epe luzerako finantzak” epigrafeak Espainiako Futbol Liga Profesionalari ordaindutako zenbatekoa barne hartzen du, 500.000,00 euro, 2013/2014ko denboraldian Espainiako Futbol Liga Profesionalean izena emateko ordaindu zena. Horrez gain, 2018ko ekitaldian, Elkarteak 1.030.000,00 euroko fidantzak eratu zituen, Sociedad Deportiva Eibar, S.A.D. elkartearen Kirol Hiriarren kokaleku izango diren lurrak erosteko aukerei buruz.

Epe luzerako finantza-inbertsioen epigrafearen barruan, Inbertsio Fondoetako partaidetza jasotzen da, 25.428.001,62 euroko zenbatekoarekin. Finantza-baliabide horiek urte batetik gorako epemuga dute.

Taldeko enpresei eta enpresa bazkideuei epe laburrera emandako kredituen atalean, Mendate, S.L. enpresari emandako kreditua erregistratu da.

Gordailuetan, oro har, emankizun-eskubideen kudeaketa kolektiboko erakundeari emandako kopurua jasotzen da.

2019ko ekitaldian, 22.711.223,62 euroko eperako ezarpenak egin ziren finantza-erakundeetan, % 0,1ko batez besteko interes-tasarekin eta 3 hilabete eta urtebete arteko epemugarekin.

Bestalde, zorrak adierazten dituzten balioek Elkarteak eskuratutako zor-agiriak ordezkatzeko dituzte, 1.493.924,51 eurokoak eta urtebetetik beherako epemugarekin.

SOCIEDAD DEPORTIVA EIBAR, S.A.D.

2020KO EKITALDIAREN MEMORIA

(Eurotan adierazita)

Kirol-erakundeei epe luzera eta laburrera emandako kredituetan, oro har, jokalaria saltzeagatik edo lagatzeagatik kobratzearen zuzenbeteak eta kontu korrontean dagoen Espainiako Futbol Profesionaleko Ligarekiko saldo zorduna jasotzen dira.

Hona hemen bezeroei kobratu beharreko kontuen balio-narriaduraren ondoriozko balio-zuzenketaren mugimendua:

	<u>2020</u>	<u>Euro 2019</u>
Hasierako saldoa	(70.004,97)	(70.004,97)
Hornidura	-	-
Amaierako saldoa	<u>(70.004,97)</u>	<u>(70.004,97)</u>

“Maileguak eta kobratzeko kontuak” atalean jasotako gainerako kontuek ez dute balioaren narriadurarik pairatu.

Kreditu-arriskurako esposiziorik handiena informazioa aurkezteko egunean, lehenago adierazitako kobratzeko kontuen kategoria bakoitzaren arrazoizko balioa da. Elkarrekin ez du inolako bermerik aseguru gisa.

9. Izakinak

	<u>2020</u>	<u>Euro 2019</u>
Merkataritzakoak	128.012,52	148.949,24
Izakinaren balioaren narriadura	-	(41.196,42)
	<u>128.012,52</u>	<u>107.752,82</u>

Partida honetan, ekitaldia ixtean, Elkarrekin bulegoetan eta kanpoko biltegian zeuden kirol-materialeko eta merchandisingeko produktuak izakinei dagokien zuzenbetea dago erregistratuta.

Hona hemen merkataritzako izakinaren balio-narriaduraren ondoriozko balio-zuzenketaren mugimendua:

	<u>2020</u>	<u>Euro 2019</u>
Hasierako saldoa	(41.196,42)	(41.196,42)
Aplikazioa	41.196,42	-
Amaierako saldoa	<u>-</u>	<u>(41.196,42)</u>

10. Periodokatzegatik doikuntzak

2019ko ekainaren 30ean periodokatzegatik doikuntzetan erregistratutako zuzenbeteak, oro har, besterendutako jokalaria baten eskubide ekonomikoen % 20aren gastu aurreratua barne hartzen du.

Balantzearen pasibo korrontean epigrafe honetan, 2020/2021. denboraldiko emankizun-eskubideen ondoriozko diru-sarrerak jasotzen dira nagusiki, ekitaldia itxi aurretik kobratu direnak, 275.453,59 euroko zuzenbetearekin (2019an, 7.575.000 euro). Era berean, bertan jasotzen da 2019/2020 denboraldiko emanaldi-eskubideen ondoriozko diru-sarrearen zati bat, hain zuzen, 2020ko ekainaren 30aren ondoren jokaturako partidei dagokiena, 7.910.897,78 euroko zuzenbetearekin.

SOCIEDAD DEPORTIVA EIBAR, S.A.D.

2020KO EKITALDIAREN MEMORIA (Eurotan adierazita)

11. Kapital soziala eta fondo soziala

2014ko ekainaren 30ean, 6.600 izendun akzio arruntek osatzen zuten kapitala. Akzio bakoitzak 60,10 euroko balio nominala zuen eta denak zeuden ordainduta. Gainerako zenbatekoa, 25.584,84 euro, Kirol Elkarte Anonimo bilakatu aurreko fondo sozialari zegokion. Beraz, 422.252,83 euroko kapitala zegoen eskriturretan, Kirol Sozietate Anonimoen buruzko uztailaren 5eko 1084/1991 Errege Dekretuan ezarritako gutxieneko zenbatekoarekin bat etorriz.

2014/2015eko denboraldiaren bigarren seihilekoan, Kirol Kontseilu Gorenaren eskaerari jarraikiz, kapitala 39.600 akzioarekin handitu zen (2.379.960,00 euroko balioarekin), denboraldi horretan Elkartearen lehen taldeak Lehen Mailan jokatu ahal izateko. Kapital-gehikuntzaren zenbateko osotik, akziodunek egindako ekarpenen bidez 1.980.000,00 euro harpidetu ziren eta gainerako zenbatekoa (399.960,00 euro), Elkartearen erreserben kontura gauzatu zen.

Eskubide berberak dituzte kapitala osatzen duten akzio guztiek, transferigarritasunari buruz lege ezarritako estatutu-murrizpenak barne.

Elkarteak ez du berezko akziorik.

Bi akziodunek soilik dute % 2tik gorako partaidetza kapital sozialean: Mendate, S.L. eta Ipurua Kirol Fundazioa, 3.044 eta 1.139 akzioarekin, hurrenez hurren.

12. Erreserbak

	Euro	
	2020	2019
Lege- eta estatutu-mailan:		
Lege-erreserba	560.442,57	560.442,57
	560.442,57	560.442,57
Beste erreserba batzuk:		
Erreserba bereziak	27.699.737,06	17.440.597,16
Borondatezko erreserbak	18.743.042,12	17.251.584,99
	46.442.779,18	34.692.182,15
	47.003.221,75	35.252.624,72

Lege-erreserba

Kapital-sozietateei buruzko legearen 274. artikulua arabera, elkarteek ekitaldiko mozkinaren % 10 xedatuko dute lege-erreserbarako, harik eta erreserba hori, gutxienez, kapital sozialaren % 20ra heldu arte.

2020ko ekainaren 3ean, behar bezala hornituta dago erreserba, ezarritako baldintzekin bat.

Erreserba ezin da banatu, eta galerak konpentsatzeko erabiltzen bada, helburu horretarako bestelako erreserba eskuragarriak nahikoak ez direlako, etorkizuneko mozkinekin berriz hornitu beharko da.

Erreserba bereziak

Enpresen kapitalizazioa sustatzeko erreserba (16.2. oharra) bat dator epigrafe honetan erreserba berezi gisa kontabilizatutako zenbatekoaren % 10ekin.

Hainbat mugapen daude erreserba hori banatzeko, izan ere, gutxienez, xedaezina izango baita haren kenkaria aplikatu duten zergaldia amaitzen denetik bost urte igaro arte. Bost urteko epe horretan, erakundearen zerga-ondorioetarako ondare garbiaren zenbatekoak aldatu gabe jarraitu edo gora egin behar du, salbu eta kontabilitateko galeren ondorioz jaitsiera gertatzen denean.

Borondatezko erreserbak

SOCIEDAD DEPORTIVA EIBAR, S.A.D.

2020KO EKITALDIAREN MEMORIA (Eurotan adierazita)

Erreserba hauek xedapen askekoak dira.

13. Ekitaldiaren emaitza

Hona hemen emaitzaren banaketaren eta erreserben inguruan Akziodunen Batzar Orokorrean aurkezteko proposamena:

	2020	Euro 2019
<u>Banaketa-oinarria</u>		
Galdu-irabaziak	15.128.115,17	11.750.597,03
	<u>15.128.115,17</u>	<u>11.750.597,03</u>
<u>Aplikazioa</u>		
Erreserba bereziak		- (10.259.139,90)
Borondatezko erreserbak	(15.128.115,17)	(1.491.457,13)
	<u>(15.128.115,17)</u>	<u>(11.750.597,03)</u>

Dibidenduen banaketarako mugapenak

Elkarteak ekitaldiko mozkinaren % 10 bideratu behar du lege-erreserbara, harik eta erreserbak, gutxienez, kapital sozialaren % 20ra heltzen den arte. Erreserba hori ezin izango da akziodunen artean banatu kapital sozialaren % 20ko muga gainditzen ez duen bitartean.

Legeak edo estatutuek aurreikusitako eskakizunak bete ostean, ekitaldiko mozkinen edo xedapen askeko erreserben kargurako dibidenduak banatu ahal izango dira, baldin eta ondare garbiaren balioa ez bada kapital soziala baino txikiagoa (edo banaketaren ondorioz ez bada hala gertatzen). Ondorio horietarako, zuzenean ondare garbira egotzitako irabaziak ezin izango dira banatu, ez zuzenean, ez zeharka. Aurreko ekitaldietako galeren ondorioz Elkartearen ondare garbia kapital sozialaren zenbatekoa baino txikiagoa balitz, galera horiek berdintzeko erabiliko da mozkina.

14. Jasotako kapitaleko diru-laguntzak

Hona hemen balantzearen "Jasotako diru-laguntzak, dohaintzak eta legatuak" epigrafean agertzen diren itzuli beharrik gabeko kapitalaren diru-laguntzen xehetasuna:

Erakunde emakidaduna	Euro	Xedea	Kontzesio- data
Espainiako Futbol Liga Profesionala (LNFP)	3.055.631,00	Lagatako instalazioetan egindako inbertsioen finantzazioa (5. oharra)	1993
Eibarko Udala	99.957,28	Ipuruako futbol-zelaia birmoldatzeko egindako inbertsioen finantzazioa.	2014
Eusko Jaurilaritza	99.957,28		
Gipuzkoako Foru Aldundia	99.957,27		
Gipuzkoako Foru Aldundia	350.000,00	Ipuruako estadioko ekialdeko tribuna eraberritzeko finantzazioa	2017
Gipuzkoako Foru Aldundia	80.000,00	Ipuruako estadioko mendebaldeko tribuna eraberritzeko	2019
Gipuzkoako Foru Aldundia	550.000,00	finantzazioa	2020
	<u>4.333.502,83</u>		

Honelakoa izan da diru-laguntza horien mugimendua:

Euro

SOCIEDAD DEPORTIVA EIBAR, S.A.D.

2020KO EKITALDIAREN MEMORIA (Eurotan adierazita)

Kontzeptua	Saldoa			Saldoa			Saldoa
	2018-06-30ean	Kontzesioa	Emaizarako egozpena	2019-06-30ean	Kontzesioa	Emaizarako egozpena	
Diru-laguntzaren zenbateko gordina	1.060.967,40	583.918,73	(113.933,36)	1.530.952,77	591.703,52	(149.433,36)	1.973.222,93
Zerga-eragina (16.1. oharra)	(258.268,27)	(110.232,23)	28.735,68	(339.764,82)	(41.703,52)	28.735,68	(352.732,66)
Diru-laguntzaren zenbateko garbia	802.699,13	473.686,50	(85.197,68)	1.191.187,95	550.000,00	(120.697,68)	1.620.490,27

6 a) oharrean adierazten denez, Elkartek estadioa kontraprestaziorik gabe erabiltzeko eskubidea erregistratu zuen 2018ko uztailaren 1ean. Beraz, estadioa erabiltzeko eskubideari lotutako diru-laguntza emaitzetara egotziko da Elkartearen eta Eibarko Udalaren arteko hitzarmenak indarrean jarraitzen duen bitartean.

2020ko ekitaldian zehar, Gipuzkoako Foru Aldundiak 550.000 euroko diru-laguntza eman zion Elkarteari, Ipuuako mendebaldeko tribuna eraberritzeko. Diru-laguntza hori Elkarteari 2019ko ekitaldian helburu bererako emandako diru-laguntzaren gehikuntza bat da.

15. Zorrak eta ordaintzeko partidak

	Euro	
	2020	2019
Zorrak eta ordaintzeko partidak, epe laburrera:		
Ibilgetuaren hornitzaileak	586.122,01	394.172,84
Kirol-erakunde hartzekodunak	1.885.618,03	3.541.441,38
Askotariko hornitzaile eta hartzekodunak	1.350.261,18	457.626,25
Pertsonala (ordaintzeko dauden ordainsariak)	5.231.596,41	2.846.547,06
Zerga arruntagatiko pasiboak (16.2. oharra)	-	1.335.958,63
Beste zorra batzuk Herri Administrazioekin (16.4. oharra)	5.847.894,97	5.257.416,78
	14.901.492,60	13.833.162,94

Zorren kontabilitate-balioa arrazoizko baliotik hurbil kokatu da, deskontuaren eragina ez delako esanguratsua.

Elkartek ez du kreditu-polizarik ezta bestelako zorzarik kreditu-erakundeekin.

2020ko eta 2019ko ekainaren 30ean ez dago epe laburrerako zorrik atzerriko monetan.

Elkartek ez du ez-ordaintzerik egin printzipalari, maileguen interesei edo antzeko beste eragiketa batzuei dagokienez ekitaldi honetan.

a) Kirol-erakunde hartzekodunak:

Epigrafe honetan, oro har, kirol-erakunde jakin batzuei zorpetutako zenbatekoa jasotzen da, 2 jokalariren traspasatze-eskubideei dagokienez.

b) Pertsonala (ordaintzeko dauden ordainsariak):

Epigrafe honetan, kirol-lantaldeari, gorputz teknikoari eta kirol-zuzendaritzari emandako zenbatekoa jasotzen da, alegia, "Mailari eusteagatiko prima", 2019/2020ko denboraldian ligako sailkapenean lortutako posizioaren ondorioz. 2020ko ekainaren 30ean taldeak lehen mailan geratzeko aukera asko zituela kontuan hartuta, 1.919.575,00 euro banatu ziren (2019an, 2.102.023,06 euro). Gainerako zenbatekoa, 3.312.124,36 euro, ordaintzeko zain zeuden fitxen zenbatekoei dagokie, 2020ko uztailaren eta abuztuaren ordaindu direnak.

SOCIEDAD DEPORTIVA EIBAR, S.A.D.

2020KO EKITALDIAREN MEMORIA

(Eurotan adierazita)

Hornitzaileei egindako ordainketen atzerapenei buruzko informazioa. Uztailaren 5eko 15/2010 Legearen 3. X.G., "Informatzeko betebeharra:

Uztailaren 5eko 15/2010 legeak, gehienez, 60 eguneko epea ezartzen du enpresek hornitzaileei ordaintzeko.

Hona hemen hornitzaileei ordaintzeko batez besteko aldiari buruzko informazioa:

	<u>2020</u>	<u>2019</u>
Egunak		
Hornitzaileei ordaintzeko batez besteko aldia	20,62	41,68
Ordaindutako eragiketen ratioa	18,03	41,53
Ordaintzeko dauden eragiketen ratioa	17,33	64,53
Euro		
Egindako ordainketak, guztira	12.060.528,89	12.282.255,45
Ordaintzeko dauden ordainketak, guztira	379.546,76	81.885,78

16. Zerga-egoera

16.1 Geroratutako zergak

Hona hemen geroratutako zergen xehetasuna:

	Euro	
	<u>2020</u>	<u>2019</u>
Geroratutako zergagatiko aktiboak:		
Konpentsatzeko dauden zerga-oinarri negatiboak	1.974.821,02	-
Aplikatzeko dauden kenkariak	181.980,12	
	<u>2.156.801,14</u>	
Geroratutako zergagatiko pasiboak:		
Denborazko aldeak	(352.732,66)	(381.468,34)
Geroratutako zergak	<u>1.804.068,48</u>	<u>(381.468,34)</u>

Horrela mugitu dira geroratutako zergagatiko aktiboak eta pasiboak ekitaldian zehar, saldoen konpentsazioa kontuan hartu gabe:

	Euro	
	Konpentsatzeko dauden zerga-oinarri negatiboak	
Geroratutako zergagatiko aktiboak		
Saldoa 2019ko ekainaren 30ean		-
Zerga-kredituen kapitalizazioa		2.156.801,14
Saldoa 2020ko ekainaren 30ean		<u>2.156.801,14</u>
	Euro	
	Diru-laguntzak	
Saldoa 2018ko ekainaren 30ean		(299.971,79)
(Kargua) ordainketa galdu-irabazien kontuan		28.735,68
Kapitalaren diru-laguntzako kontzesioa		(110.232,23)
Saldoa 2019ko ekainaren 30ean		(381.468,34)
(Kargua) ordainketa galdu-irabazien kontuan		28.735,68
Saldoa 2020ko ekainaren 30ean		<u>(352.732,66)</u>

SOCIEDAD DEPORTIVA EIBAR, S.A.D.

2020KO EKITALDIAREN MEMORIA (Eurotan adierazita)

16.2 Mozkinen gaineko zerga

Hona hemen ekitaldiko diru-sarreraren eta gastuen zenbateko garbiaren eta mozkinen gaineko zergaren oinarriaren arteko berdinkatzea:

	Euro		
	2020		
	Gehikuntzak	Murrizketak	Guztira
Ekitaldiaren emaitza, zergen aurretik			12.663.134,37
Behin betiko aldeak	49.908,21	-	49.908,21
Denborazko aldeak	-	-	-
Aurreko zerga-oinarria			<u>12.713.042,58</u>
Ohiz kanpoko mozkinak berrinbertitzeagatiko salbuespena			(20.813.660,59)
Beste batzuk			<u>(127.802,92)</u>
Zerga-oinarria (zerga-emaitza)			<u>(8.228.420,93)</u>
Kuota osoa (% 24)			<u>(1.974.821,02)</u>

	Euro		
	2019		
	Gehikuntzak	Murrizketak	Guztira
Ekitaldiaren emaitza, zergen aurretik			13.749.852,81
Behin betiko aldeak	31.875,31	(39.200,00)	(7.324,69)
Denborazko aldeak	-	-	-
Aurreko zerga-oinarria			<u>13.742.528,12</u>
Ohiz kanpoko mozkinak berrinbertitzeagatiko salbuespena			(6.144.027,77)
Ohiz kanpoko mozkinak aurreko ekitaldietan berrinbertitzeagatiko zuzenketak			575.000,00
Zerga-ondare garbiaren murrizketa			<u>159.388,58</u>
			<u>(5.409.639,19)</u>
Zerga-oinarria (zerga-emaitza)			<u>8.332.888,93</u>
Kuota osoa (% 26)			2.166.551,12
Aktibo ez-arrunt berrietan berrinbertitzearen ondoriozko kuotari egindako dedukzioak			-
Lehentasunezko jardueretarako dohaintzen ondoriozko kuotari egindako dedukzioak			<u>(167.295,34)</u>
Kuota eraginkorra			<u>1.999.255,78</u>

2018ko maiatzaren 17an, 1/2018 Foru Araua argitaratu ondoren, hainbat aldaketa sartu ziren zerga-arau batzuetan. Horien artean nabarmentzekoak dira karga-tasa orokorraren aldaketa (% 28tik % 26ra 2019an eta % 24ra 2020an), kenkariaren eta zerga-oinarri negatiboen konpentsazioari buruzko mugapenak, eta 30 urtera zabaltzea zerga-oinarri negatiboak eta kenkariak konpentsatzeko epea.

SOCIEDAD DEPORTIVA EIBAR, S.A.D.

2020KO EKITALDIAREN MEMORIA

(Eurotan adierazita)

2020ko ekitaldiko sozietateen gaineko zerga arrunta kalkulatzeko, % 24ko zerga-tasa aplikatu zaio zerga-oinarriari (2019an, % 26). Ekitaldian zehar, 161.210,13 euroko balioko atxikipean egin dira (333.969,85 eurokoak 2019an). Era berean, Elkartek ekonomia-intereseko elkarte batean inbertitu du 2020ko ekitaldian eta beraz, 33.228,77 euroko murrizketak lortu ditu ordaindu beharreko kuotan (329.327,30 euro). Hala, Zerga-administrazioetik kobratu beharreko zenbatekoa 194.437,90 eurokoa da (2019an, 1.335.958,63 euro ordaindu behar izan zitzaizkion Zerga-administrazioari).

2019-2020 ekitaldian, Elkartek 20.813.660,59 euroko mozkinak sortu du federazio-eskubideak eskualdatzeagatik, eskualdatetaren zenbatekoa 25.750.000 eurokoa izan delarik. Eskualdaketa horrengatik, sozietateen gaineko zergaren Foru Arauaren 36. artikuluan jasotako mozkinak aplikatu da. Elkartek konpromisoa hartzen du eskualdaketa horien bitartez lortutako zenbateko osoa ibilgetu materialen edo ukiezinen elementuetan, higiezinak inbertsioetan eta bestelako aktibo egokietan berrinbertitzeko, eskualdaketa-egunaren aurreko urtetik hurrengo 3 urtera bitarteko epean. Balantzearen egunean, 11.654.132,13 euro bihurtu dira ibilgetu material.

Betebehar horiek beteko ez balira, epea amaitu den zergaldiko zerga-oinarriari sartuko lirateke ez-betetzea eragin duten zenbatekoak, zerga-oinarriari sartu gabe utzi direnak, eta beren zenbatekoaren % 15 gehituko litzaieke.

Bestalde, 2018-2019 ekitaldian, Elkartek 6.144.027,77 euroko mozkinak sortu zuen federazio-eskubideak eskualdatzeagatik, sozietateen gaineko zergaren Foru Arauaren 36. artikuluan jasotako mozkinak aplikatuta. Eskualdatetaren zenbatekoa 7.000.000 eurokoa izan zen, eta 2019-2020ko ekitaldian jokalariei berrien federazio-eskubideak erosteko erabili da.

16.3 Zerga-oinarri negatiboak eta aplikatzeko zain dauden kenkariak

2020ko ekainaren 30ean, Elkartek geroratutako zergatik aktibo gisa ditu erregistratuta konpentsatzeko zain dauden zerga-oinarri negatiboak eta aplikatzeko zain dauden kenkari guztiak, 1.974.821,02 euroko eta 181.980,12 euroko zenbatekoekin, hurrenez hurren (2019an, Elkartek ez zuen konpentsatzeko zerga-oinarri negatiborik ezta aplikatzeko kenkaririk ere).

16.4 Herri Administrazioekin mantendutako saldoak

Honako hauek dira "Beste zorra batzuk Herri Administrazioekin" atalean erregistratutako saldoak, 2020ko eta 2019ko ekainaren 30ean:

	<u>2020</u>	<u>Euro</u> <u>2019</u>
